



Arartekoaren 2013ko azaroaren 5eko ebazpena. Horren bidez Osakidetzari gomendatzen zaio berriz azter ditzala hildako pertsona baten dokumentazio klinikoa eskuratzeko eskaera ebazterakoan oinarritzat hartu diren irizpideak.

Aurrekariak

1. Kexaren arrazoa da emakume bati bere senarraren dokumentazio klinikoa ikusteko eskaera ukatu diotela.

Pertsona horrek azaldutakoari jarraiki, ez zioten inolako azalpenik eman ukapenaren inguruan, beraz, esan dezakegu bere kexak oinarri daukala.

Gure informazio eskaeraren erantzunaren zain geunden bitartean, pertsona horrek jakinarazi zigun dokumentazioaren zati bat helarazi diotela. Hala ere, ez dizkiote solairuko eta ZIUko erizaintzako orriak eman, ezta Txagorritxu ospitaleko arnasketa zerbitzuko zainketei lotutako historia medikoaren zatia ere. Horregatik, gure hasierako eskaera zabaldu genuen datu hori aintzat hartuz.

Osakidetzak bere erantzunean honelako hau adierazi zigun:

“41/2002 Legeak 18. artikuluko laugarren paragrafoan ezartzen du: “los centros sanitarios y los facultativos de ejercicio individual sólo facilitarán el acceso a la historia clínica de los pacientes fallecidos a las personas vinculadas a él, por razones familiares o de hecho, salvo que el fallecido lo hubiese prohibido expresamente y así se acredite. En cualquier caso el acceso de un tercero a la historia clínica motivado por un riesgo para su salud se limitará a los datos pertinentes. No se facilitará información que afecte a la intimidad del fallecido ni a las anotaciones subjetivas de los profesionales, ni que perjudique a terceros.”.

Arauketa hau garatuz, 38/2012 Dekretuak, martxoaren 13koa historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalen dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta obligazioei buruzkoa 14. artikuluan honako hau ezartzen du hirugarren paragrafoan: *“Hildakoen historia klinikorako sarbidea izango dute hirugarrenek, haiekin familia-loturak edo egitatezko loturak zituztela ziurtatzen dutenean, baldin eta eskatzailearen osasuna*



arriskuan jar lezakeen arrazoirik badago, hildakoak berak berariaz eta modu frogagarrian debekatu ezean.

Kasu guztietan, dagozkion datuak bakarrik kontsultatu ahal izango dira, eta ez da sarbiderik izango hildakoaren intimitatea kaltetu lezakeen informaziora, osasun-profesionalen ohar subjektiboetara, ez eta hirugarrenak kaltetu litzakeen informazioetara ere.”

Eta bukatzen zuen, adieraziz, kasu honetan, Arabako Unibertsitate Ospitaleak eskuratu ziola kexadunari zegokion dokumentazioa, arau-aurreikuspenek ezartzen dutenaren arabera Osakidetzan.

Ez zen azaltzen goian aipatutako eta eskatu zuen gainerako dokumentazioa zergatik ez zioten eman: solairuko eta ZIUko erizaintzako orriak eta arnasketa zerbitzuko zainketei lotutako agiriak.

Aurrekari horiekin, beharrezkotzat jotzen dut gogoeta hauek egitea:

Gogoetak

1. Lehen ere bideratu izan ditugu historia klinikoa eskuratzearekin lotutako beste kexa-espeditente batzuk. Haietan bezalaxe, kasu honetan ikusi dugu aipatutako arauak transkribatu besterik ez dela egiten erantzunean, eta idatziz ez dagoela jasota inolako egiaztapenik legerian ezarritako mugak kasu honetan gertatu ote diren jakiteko.
2. Eskuratzeko eskubide hori azaroaren 14ko 41/2002 Legean eta martxoaren 13ko 38/2012 Dekretuan jasota dago eta arau horiek aipatu dira Osakidetza gure informazio-eskaerari emandako erantzunean.

Bi arau horietan, historia klinikoa eskuratzea uka daitekeen zenbait kasu daude xedatuta, baina kasu bakoitzean zehaztu beharra dago, aztertu eta gero, ea zertzelada horiek gertatu diren. Eman dizkiguten datuen arabera, ukapen-erabakia hartzeko orduan ez zen aurretiaz aztertu ea zertzelada horiek gertatu ziren.



Egiaztapen hori egin ezean, ezin da aurretik esan kasu honetan legezko mugaren bat dagoen ala ez. Baina, hori bai, aurreratu dezakegu ezinezkoa dela alegazio orokor baten bidez, erantzunean adierazitako kausak gertatu direla uste izanda, agiri kliniko jakin batzuk eskuratzeko eskaria ukatzea. Era berean, ezin da eskaerarik ukatu familian osasun-arazorik ez dagoela oinarritzat hartuta.

3. Kexa honetan azaldutako arazoa berriki bideratu ditugun beste kexa batzuetan ere antzeman dugu eta, horregatik, gomendio orokorra egin behar izan dugu. **(Arartekoaren 9/2013 Gomendio Orokorra, azaroaren 5ekoa. Dokumentazio klinikoa eskuratzeko eskabideak ebazterakoan oinarritzat hartzen diren irizpideak egokitzea).** Funtsean, gomendio horretan erabilitako argudio berberak mahaigaineratu ditzakegu.

Hori guztiori dela eta, erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikulua manatutakoarekin bat etorritik, honako gomendio hau egiten da:

GOMENDIOA

Zendu zen bere senarraren historia klinikoa ikusteko xxx andreak baliatu nahi izan duen aukeraren ukapena berrikustea eta eman ez dioten dokumentazioak antolamenduak xedatu dituen ukapen arrazoiak barne hartzen dituen modu eraginkorrean egiaztatu ostean, ebaztea.